

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Serafin Baraiazarra Albizu

*Muxika,
Bizkaia
(1929-2019)*

Aurkibidea



Biografia



1929an jaio zen Ibarruriko (gaur egun Muxika) Mauma auzoko Santamañe baserrian. Aita Burdaria auzoko Otxortia baserrikoa zuen eta ama Mauma auzoko Irudieta "Aixenbeko" baserrikoa. Sei neba-arrebatatik bosgarrena izan zen. Eskolara gutxi joan zen, zazpi urte zituenerako artzain lanetan zebilelako 120-160 ardi ingururekin. 1945ean, ardiok saldu eta Durangoko Anpueroren basoan eta Zornotzako "Compañia Vizcaina"k Mauman zuen zerrategian hasi zen beharrean pare bat urtez. Handik lurretako Txonpolonera joan zen morroi lanetan eta han zegoela hiltegia ere aritu zen. Soldaduzka garaian Lizarran, Carrascalan eta Ibañetan egon zen eskaladan. Urte bete eta erdira etxera bueltatu eta betiko beharretara bueltatu zen. Urtean bi hilabete eta erdiz-edo Munitibarrera joaten zen gari-jotzera eta bertako esnea Lekeition saltzera. Beti bizi izan da Santamañen bere familiarekin.

Zintak

MUX-014

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-03-05
- **Iraupena:** 159 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. San Pedro ermitan bataiatua

- **Erref:** MUX-014/002
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:00:18. **Bukatu:** 00:02:42

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Bera jaio zenean, 1929. urteko azaroan, Ibarruriko eliza eraikitzen zeuden eta San Pedroko ermitan bataiatu zuten. Bere ahizpa izan zen eliza zaharrean bataiatutako azkena; eliza zaharra gaur egungo frontoiaren atzealdean zegoen. Sasoi hartan bere aita Ibarruriko zinegotzia zen.</p>

Transkripzioa

- Veinti nuevien, nobienbrien zortzixen, hogeta zortzixen. Iburriko elizie eitten egon zan, bai ta ni bautixeu nitzen San Pedron, ze eitten ibil zien eta ikusi ein naben trapu artetik.

- Orduen San Pedron bautixenikue.

- Ba horrek dekoz ba larogei urte. Bai, inaugure zala, akabeu ebela gehitxuau tardeuko eben.

- Ba ume asko ez die egongo San Pedron bautixenikoak.

- Ni ta hau Txoidxenekue, Pilar be bai, hori be diferentzi txikikue da-ta. Bittori Goikoetxekoa, ez daitz ba,ha zoker hille batzuk gartziaue da-ta.

- Ze Bittori, zure lehengusiñe?

- Ez zerekue, Goikoetxekue. Pastoriegaz ezkondu dauena.

- Nire aitten lehengusiñe.

- Bai. Ze nire arrebie ta Karmen Etxeandikue atzenengo eliza zaharrien bautixenikuek, han frontoien atzien elizie lehen, ta horrexek azkenengo bautexeunikuek hor. Ze nire aitte konzejal izen zan Iburrin ta harek ekizen horko zerak, mobimientuek, ze han geldittu zien papelok eta zerok, harek erretire zittuezan zati batzuk, baia gehixenok erre ein ei zien. Ta Karmen Etxeandiko eta nire arrebie, Zornotzan bizi zan, ta harexek bixek atzenengo bautixeunikuek eliza zaharrien. Gero atzeraukuek ez dakitz, edo eurreraukuek esan gure izen dot. Harexek agertu ziela atzenenguek.

- Ta orduen eliza barrixe ein bittartien, mezie ta dana zer eitten zan San Pedron?

- San Pedron.

- Eta intierruek eta be bai?

- Eingo zien, ez daitz hori. Intierruek be bai besterik ez zeuen, elizie akak eta bestie akabeu arte. Ze treintan-edo zertu ebela, ineugure ebela zer hori, barrixe. Entzunikuen nik be, baia. Gurien aitte difuntuek horrek ekizen, horrek bueno martxok.

2. Mauma jendez lepo

- **Erref:** MUX-014/004
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:04:49. **Bukatu:** 00:05:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Bere umea zenean, Mauman jende asko zegoen. Udagoienean jende asko aritzen zen iratan eta elkarri laguntzen.

Transkripzioa

- Ze akordu dekozu zuk umetako honena parajiena edo, Meume.
- Meume zan jentie ta bueno, Meume zan uri bat. Jentie eta bata bestie laguntzen eta udegoixenien eta honetan dana idie izeten zan eta etorten zien Abadiño aldetik eta Berriz aldetik-eta jentie, ta hamen geurien be egoten zien apopillo idi ebaten, idie prepartean. Ta hametik idie eruten eben. Ta hor piperra eta jeneroa hartzen zan hor behietan, eskandalue, bai. Ta hemen, hemen ezebez, atxurraz, artue eta babie ta garixe-ta, soloan, berton hartzen zan jenerue eta geri garie jotie izenien-ta. Oin gari jotierik-eta balego bixamonien garixe jo biher balitz bixer lez, gabien erreta dauz garixek.

3. Etxerik etxe gari-jotean

- **Erref:** MUX-014/005
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:05:43. **Bukatu:** 00:08:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Gari-jotearena behar gogorra zen, zelan moldatzen ziren kontatzen du. Makinarekin lanean hasi zirenean, lau urtean ibili zen inguruko herrietan lanean.

Transkripzioa

- Zelan izeten zan gari-jotiena-eta?
- Gari-jotie gogorra. Ze lelengo makiñiegaz joten zien, makiñie ibiltzen zan. Hemen en jeneral hor Mendatako bat etorten zan, Santi. Ta harek apurtzen zittun, baia gero gasoliñie akabeu zen, gasoliñie ez zan egon, ta gasoliña barik gari jo ezin, motorrak ezin-ta. Gero eskuz, urtietan eskuz, denpora beruaz ganera, zabalduite ipini garixek, eguzkixek berotzen ebanien ta beruan barriz granue ataten jaken. Ta pareu illaran ta ipini zozer behien, ta harri losak, ta hantxe joka. Heutse ta bueno! bihera gogorra.
- Ta ze eitten zan udegoixenien?
- Hori? ez, abuztuen jeneralien, abuztue izeten zan. Bueno abuztue eta bestie be bai garagarrille-edo esaten jako, baia, eurreko hille, hor hil bixetan izeten zan. Gero bai gero hasi zien makiñak eta zerak-eta hasi zien. Ta neu be bai, neu be lau urtien edo ibil nitzen hasi Lumon eta Kortezubittik, Belendiztik, Arratzutik hor zerin gari jotien, baia trilladoriaz, garixe jo eta galtzue trilleu ta tubuen botaten eban sabaire ta haregaz. Ta eitten nittuen San Pedro bezperan eruten zien makiñak Lumora, Lumotik honako hametiko parteko espaldara, ta San Pedro bixamonien hasi. Ze hor garixek prest egoten zien San Pedrotarako, ta hantxe hasi beti. Ta lau urtien ta bosgarrenien makiña bat ahalegin ein zosten /eisten/, baia ez nitzen juen. Gustora ibiltzen nitzen e! baia ardura handixe, ze harek makiña zaharrak-eta eukitzen zeban zer eta ituli edo eitteko ta harek katxarro zaharra, ta korreatan eta historixetan beti, beti zeretari. Orduen ni gustora ibiltzen nitzen, gartie-eta. Ze ibilli nitzen hogeta lau urtetik hogeta zortzi urtera ta ibiltzen nitzen ba itzel. Makiñe bat etxetan lo ta jan, makiña bat etxetan ein dot nik horretan.
- Ta udan izeten zan ganera. Gero jairik jai be ibilko ziñen.

- Bai, dana. Neskatan be bai, danetan. Joe hor ibiltzen nintzen itzel, baia gero.

4. Ermandadea

- **Erref:** MUX-014/007
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:11:48. **Bukatu:** 00:14:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Zugastieta auzoko Hipolitok eta beste gizon batek etxeak tasatu egiten zituen, Etxea errez gero, horrela jakiten zuten bakoitzari zenbat zegokion. Ganadua ere horrela aseguratzeko zuten. "Listeru" moduan bi pertsona egoten ziren. Behia-edo hilez gero, lurperatzeaz ere eurak arduratzen ziren. Auzoen artean oso ondo konpontzen ziren. Durangora edo Gernikara joateko, oinez hurbiltzen ziren joan beharreko lekura.

5. Zazpi urtetatik artzain eta baserriko beharretan

- **Erref:** MUX-014/009
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:15:43. **Bukatu:** 00:16:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Eskolara oso gutxi joan zen. Zazpi urterekin 140-160 ardi hartuta Oromiño (Iurreta) aldera joaten zen. Segan ere umetan ikasi zuen.

6. Maumatik Elgetara ardiekin, Zaldibiara bidean

- **Erref:** MUX-014/010
- **Iraupena:** 0:05:18. **Hasi:** 00:16:48. **Bukatu:** 00:22:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

15 urte zituela saldu zizkioten ardiak zaldibiar bati. Zaldibiarainoko lagundu behar izan zion artaldearekin eta bertarainoko bidea kontatzen du. Pasarte honetan, Elgetarainokoa azaltzen du.

7. Elgetatik Zaldibiara ardiekin

- **Erref:** MUX-014/011
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 00:22:06. **Bukatu:** 00:26:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

15 urte zituela saldu zizkioten ardiak zaldibiar bati. Zaldibiarainoko lagundu behar izan zion artaldearekin eta bertarainoko bidea kontatzen du. Pasarte honetan, Elgetatik aurrerakoa dakar gogora. Txakurra galdu zuen bidean, Zumarragan.

Transkripzioa

- Goizien urten gendun han ta Bergarara. Bergarara orduko ezin ardirik eruen, gose ardixek, gose bezperatik ezer jan barik, ta gose ta ezin eruen ta "deu" jatekoa ikusten deuen lekure. Ta txakurre ona ta txakurrek domineten zittuen. Esan notsen: "Tomas!", "zer?". "Ardixeri jaten emon biher dotsezue, ostantxien ardirik ezin eruen". "Jatekue hemen dau ta hortxe dauz etxiek eta hortxe bate edo baten baten horkoziena da hauseguramente, hau soluu. Ta jun zaittez horra, neu eukiko dittut hamen geldi ta txakurregaz-ta". Jun zan ta etorri zan gizon bat, beraz ez dakitz nik aittu edo zer ein zen, etor zen ta "hola" ta "hola" ta "ze guzu ba?", "honexei jaten emoteko [nunun] ze gosiaz amorrotute dauz -ta". Zerien "bai, bota horra" esan osten. Laster jun zien bai, ordu eta erdi inguruen euki genduzen, baia jan, [...] jatekue. Jan eben eta bueno, urten eta eurrera. Bergara paseu gendun eta eurrera Zaldibiara. Zaldibian barrue, erdi-erdixen barruen bertan nau zer batzuk hango giputz batzuk Bizkaire, ardixekin honantza ta gu harantza, ezin kurtxeu, guardasola be han galdu naben ta txakurre be bai. Haren berbetie eta aittu ez txakurrek eta txakurre ba billurtu ein eben gure txakurre, ta txakurre desapadezidu jaten. Kauen, eskerrak ardixek juanda egon zien eta ba eurrera. Harekin kurtxeu giñen ta. Hantxe Bergaran salida-salidan goiezela: "Serafin!" didarra. "Ta ze kristo dau hamen?". Beittu naben gora ta Luzia, hamengoxe Asteikue, Asteiko alabie, hara ezkontute, ointxe etxe zaharra ointxe barrixe ein dabe hor, hortxe zaharrekue alabie zan. Hantxe berba bi ardixen eurretik joan nitzen ni-ta, ta txakurre albotik eruten naben ta hantxe berba bi, eurrien hau zesto palizakin zerak eitteko fabrikie, otzarak-eta besoko horrek alfadunek eta holakoxiek eitteko fabrikie eurrien eta hantxe pare-parien, beste aldien eurrera. Gero Deskargara, Deskarga esaten jako han aldapa bat igon ta goixen, han paradie. Han eindde egon zan lekue, alanbrakin, hiru leku, pastore bi etorten bazien be, ezta? baktzari lekue eindde ekezan harek, ze han pastoriek hemetik harantza eta honantza etorten zien ta puntue hartute deskantsue eitteko. Han geldittu giñen ta kamiñuen beheko partetik euen baserri-etxe bat, ganau pillue eta idixek-eta pillue eta han gabien, ño! ez naben aittu be eitten esaten ebena be, "titaute" pareten jaten zera ta aittu be ez naben eitten, ta desespereute, dios! bueno, bixamonien egunek zabaldu eban ta eurrera. Joan giñen eta hurrungo egunien gabien allegeu giñen hara, zerien, illundute Beasaian, dana soldaue han, Beasaian soldau asko euen orduen, soldau euezan-ta, dana soldaue ta gabien danak etorritte ta txakurrik barik, segiten eusten ardixek baia beste horrek atzetik ez zittun manejetan eta eurrera. Ta gero han trenbidie paseu ta eskumera hartzen da gora [...ra] juteko eta allege giñen, ez daitz ze ordu izengo zan illundute, illundute paseu giñen Beasainen be ta.

8. Ardien usainaren atzetik Zaldibiara

- **Erref:** MUX-014/012
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:26:25. **Bukatu:** 00:29:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

15 urte zituela saldu zizkioten ardiak zaldibiar bati. Zaldibiarainoko lagundu behar izan zion artaldearekin. Bertara heldu zirenekoa kontatzen du. Afaltzen zeudela Zumarragan galdutako txakurra azaldu zen, usainari jarraituz topatu zuen Serafin.

Transkripzioa

- Jun giñen ta allegeu giñen, itzelezko kortie eken ardixentzako ta sartun genduzen ardixok eta zerera, pisure, bigarren pisuen pentseten dot, lelengokoa ala bigarrena zan ez daitz. Baekezan gitxi lau bat pisu-edo eurek bizi zien lekuen. Joan giñen eta andrie euen han, lau ume, baia ume edarraurik! Pentsetan egon nitzen, beittu netsen hareri umieri ta beittu notsen berari ta "kauen dios" ha henbrie be itzela e, baia umiek? zelako umiek! Lau. Ipin oskun aparixe, aparixe zelebrie ganera, nik ez dot etxien sekule jan: urdixe lelengo, bota eban sardanera ta gero tomatie. Ta tomatie urdixe paretan da laban eskasau tomatien eindde urdixe ta urdixe paretan da, ta bueno zozer jan gendun-ta. Jaten gauzela, "kikiki", txakur-irrintzie atien. Pisue, bigarren pisue dala pentseten dot e, bigarren pisue igonda atien txakurre, ensegida irrintzie entzun nabien ta pentse neuken: "horixe da txakurre!". Jun andrie, zabaltzen deu atie ta "rreu" neugana, sartun jaten ta altzora ta txakur hori, bueno! orduntxe umorie orduntxe etor jaten, kauen, ha txakurre? estimauau euki nauen txakurre, txakur ona bazan txakur gorri bat, laranja-laranjadie txakurre ta biherrien-ta dios ha txakurre. Burutik be kendu eziñik egon nitzen, ta etor zanie, bueno.

- Ta tope ein otsun.

- Bai, ia Beasainen galdu txakurre Beasainen ez, Zumarragan, Zumarragan galdu txakurre ta usiñera nora etor zen, bueno usiñera fasil egon zan, ardixetatik eta zerien usiñera, baia ardixetatik gero hara habitaziñora etortie txakurre, orduen ba atiek-eta zabalik egoten zien. Oin atie behien behien joteko, zabaltzeko, tinbrie jo eta historixak ein biher die; orduen atiek zabalik egoten zien. Txakurre sartu, igon eskillaratan gora eta atien txakurre. Ta gero neure onduen. Ba andri horrek esan eban ba: "kuartuen bertan euko dozu gabien be", manta bat bota otsen ohien eurrien, ta ni ohien ta manta baten ganien txakurreeurrien euki neuken. Dios buruen pasetan, dios!

9. Orduko zazpi kilometro oinez

- **Erref:** MUX-014/013
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:29:13. **Bukatu:** 00:31:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Ardiekin Zaldibiara joan ostean, galdu barik bueltatu zen Maumara. Bidean, Elgeta ondoan, gerratean Ajuria auzoko abadea zenarekin egin zuen topo. Etxera bueltan orduko zazpi kilometro egin zituen.

10. Gazta asko egin eta saltzen zituzten

- **Erref:** MUX-014/014
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:31:48. **Bukatu:** 00:34:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Ia 160 ardi saldu zituzten Zaldibian. Ordura arte gaztaia egiten zuten batez ere. Bere aman 85 urte egin zituen langintza horretan. Gazta asko egiten zuten. Gernikan eta Zornotzan saltzen zuten.

11. Gazta egiteko prozesua

- **Erref:** MUX-014/016
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:35:56. **Bukatu:** 00:38:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Gazta zelan egiten den azaltzen du: esnea, legarra, gatzura... Gazta egiteko esku hotzak izan behar dira.

12. Ardi-latxak eta sasi-ardiak

- **Erref:** MUX-014/017
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:38:30. **Bukatu:** 00:40:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Inguru honetan ardi-latxa baino ez da egon. Orain sasi-ardiak ere baditu bere semeak. Bildots-salmenta ugaria zen.

Transkripzioa

- Ta ardixek bakarrik latxie eukin zenduen?
- Bai.
- Hamen parajien beste ardirik ez da egon.
- Ez hemen ez da egon besterik, ez da egon. Oin honek semiek eta horrek Karmelok-eta dekez hor, horrek sasi-ardixek esaten jakenak, buru gorri txikitxuek, baia horrek barrabasak baiño txarrauak die horrek, horrek, horrek. Horrek? horrek noberan ganetik be bardin-bardin be joaten die. Bai, bai. Estutxen bazu horrek ganetik bardin, saltue horrek! Igezko negue

hemen gure landan paseu eben. Ze horrek billotsak, ontxe dauz billotsak eitten. Ez dekiez hirogeta, hirurogeta hamarren bat-edo, holako bat dauz, ez deke pillo handirik. Ontxe dauz billotsak eitten ze horrek aharixek berandu botaten dotse, udabarrire billotsak eitteko ze negu-neguen horrek egon die basuen ointxartien. Ointxe dala zemat? Hamabosta-edo ez da izengo kortan sartun dittuela, oin kortan dauz, bai. Baia, horrek ez die bitxuek.

- Horrenbeste ardi eukindde ta gero bildotsak, ez zenduen okeletarako saltzen-edo?

- Billotsak bai, billotsak danak. Eurrerako izten genduzen ba emiek zienak, urrusak, eurrerako ba izten zien ba hogeta hamar-hogeta hamabost urtien izeten zan hazten zienak, ze gero zaharretatik kendu eitten zien holako bat eta eitten zan, ostantxien billotsak lehen billotsa oin egon be gitxi dauz.

13. Ira saltzen; pospolo-kaxa dirua gordetzeko

- **Erref:** MUX-014/018
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:40:06. **Bukatu:** 00:42:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Mauma beti izan da artzain auzoa, etxe guztietan zeuden ardiak. Basoetan ez zen otarik ere egoten. Ira asko saltzen zuten bolantekadaka. Umetan pospolo-kaxa erabiltzen zuten kartera legez. Diruak balio asko galdu duela dio.

14. Ume meharra

- **Erref:** MUX-014/019
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:42:00. **Bukatu:** 00:43:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Umetik oso-oso meharra zen serafin. Behin hori dela eta gertatu zitzairen pasadizo bat dakar gogora.

15. Maumako zerrategia

- **Erref:** MUX-014/020
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:43:13. **Bukatu:** 00:47:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Ardiak saldu zituztenean zerrategian hasi zen beharrean. Mauman bertan

egon zen zerrategia, bertako baso batean. Bertako ingurukoak ibili ziren beharrea: Gorozika, Berroia, Ibarruri, Mauma... Zornotzako "Compañia Vizcaina"rena zen zerrategia. Kable bidez egon zen komunikatuta zerrategia Maumarekin.

16. Egurra zelan garraiatu

- **Erref:** MUX-014/022
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:47:28. **Bukatu:** 00:50:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Basotik zerrategira egurra zelan kargatzen eta garraiatzen zuten azaltzen du. Zerrategia luzaroan egon zen martxan. Eguneko zazpi pezeta irabazten zuten. Domeketan baino ez zuten hartzen atseden.

17. Soldadutza gogorra

- **Erref:** MUX-014/025
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:57:46. **Bukatu:** 01:01:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

lurretako etxe batean morroi egon ostean, Durangoko abere-hiltegia egon zen lanean. handik Lizarrara joan zen soldadu Carrascalera joan aurretik. Soldadutzako bizipen gogorrak kontatzen ditu pasarte honetan.

18. Gari joteko makinarekin beharrea

- **Erref:** MUX-014/027
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 01:19:03. **Bukatu:** 01:22:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Soldadutzatik etxeratu ostean, betiko betebeharrak bueltatu zen. Gari joteko makinarekin ere aritzen zen lanean era Lekeitiora ere esnea saltzera joaten zen. Garia kodainarekin (sega) ebakitzen zuen.

19. Durangoko hiltegia lanean

- **Erref:** MUX-014/029
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 01:24:11. **Bukatu:** 01:28:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Iurretan morroi zegoela, Durangoko hiltegian aritu zen lanean. Harakin baten bitartez hasi zen. Bakoitzak bere txahala hiltzen zuen bertan, ez gaur egun bezala. Erremintak, osterak, gaur egungolakoak ziren. Inguruko baserriar denak joaten ziren Durangora. Gernikan eta Bilbon ere bazeuden hiltegiak.

20. Dotrina eta eskola maistrak

- **Erref:** MUX-014/031
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:29:20. **Bukatu:** 01:32:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Eskolara joateko asti gutxi izaten zuten. Bi maistra ezagutu zituen: Ajuria auzoko Auzokoa baserriko Anita eta muxikar bat. Eskola eta dotrina erdaraz ikasi zuten. Dotrina maistrak ematen zien. Muxikakoa Ajuriakoa baino hobea zen.

21. Pilotan, arbiagaz futbolearen eta banderaka

- **Erref:** MUX-014/032
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 01:32:08. **Bukatu:** 01:35:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Arbiarekin jolasten zuten futbolearen. Pilotak, osterak, eskuz egiten zituzten. Mauman egon zen pilotan oso abila zen bat, Damian. Bere osaba bat ere trebea izen. "Banderaka" ere jolasten ziren neskekin batera.

22. Gerra hasiera eta Gernikako erasoak

- **Erref:** MUX-014/033
- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 01:35:51. **Bukatu:** 01:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra hasierako oroitzapenak. Ama autobusez etxera heldu zen, eta berak esan zien gerra hasi zela. Beraien etxean ere izan zituzten soldaduak. Gernikako bonbardaketako egunean harako bidean ikusi zituen hegazkinak. Bere aita Gernikan zen.

23. Mauman asko hil zituzten

- **Erref:** MUX-014/036
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:45:46. **Bukatu:** 01:48:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Mauman asko hil zituzten gerran, hiru aste iraun baitzuen borrokak. Horri buruzko hainbat azalpen ematen ditu zehaztasunekin. Zelaia baserriko Genaro euskaraz abesteagatik hil zuten.

24. Auzokoa gurdiak buelta emanda hil

- **Erref:** MUX-014/038
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:50:44. **Bukatu:** 01:52:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Maumako Goikoetxekoen aitite idiekin gurdikadarekin zetorrela, gurdiak buelta eman eta bertan hil zen.

25. Maumako eta Ibarruriko abadeen haserreak

- **Erref:** MUX-014/039
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:52:03. **Bukatu:** 01:54:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Maumako abadeak kanposantua nahi izan zuen jarri bertan, baina Ibarrurikoek ez zioten utzi. Hildakoak Ibarruriraino eraman behar izaten zituzten.

26. Bulda ordainduz gero jatekoa libre

- **Erref:** MUX-014/040
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:54:13. **Bukatu:** 01:56:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Mezara joatea derrigorrezkoa zen. Garizumako buldak zazpi pezeta balio zuen eta hori ordainduz gero, denetarik jan zitekeen.

27. Idiak goldaketarako

- **Erref:** MUX-014/042
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:58:17. **Bukatu:** 01:59:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Beti izan dituzte idiak, baina lanerako, ez probetarako. Beste etxe batzuetara ere joaten zen bere idiekin goldaketara.

28. Ferratzaileak eta buztarginak

- **Erref:** MUX-014/043
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:59:36. **Bukatu:** 02:01:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Idientzako ferratokiak Urrutxun eta Zugastietan egon ziren. Buztarginik ez du inguruetan ezagutu, Arratiatik edo Elorriotik etortzen ziren.

29. Animalia hotsak

- **Erref:** MUX-014/046
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 02:03:59. **Bukatu:** 02:04:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Animalien hotsak: astoak arrantza, ardiak "orrue", behiak "orroie", zaldiak irrintzia, oiloak "ko-ko-ro-ko", oilarrak "kukurruku".

30. Animaliak ume-eske

- **Erref:** MUX-014/047
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 02:04:32. **Bukatu:** 02:05:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Animaliak ume-eske hasten direnerako, bakoitzak bere hitza du egoera horri

esateko: Txakurra ozal egoten da, behia "susara", astoa altan, txerria irustu egiten da, zaldia altan egoten da, eta ardia eta ahuntza erkera.

31. Poxpolinak oilo artean

- **Erref:** MUX-014/048
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 02:05:55. **Bukatu:** 02:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

Garitan poxpolin asko egoten ziren. Poxpolinen arrautzak oiloekin jartzen zituzten lokatzeko.

32. Ahuntzak eta ardiak nagusi

- **Erref:** MUX-014/050
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 02:08:16. **Bukatu:** 02:10:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

Lehen azeriak eta basurdeak ugariak ziren; gaur egun, oster, orkatzak ugaritu dira. Lehen ardiak eta ahuntzak ziren nagusi Mauma aldean. Ahuntzak basoak garbitzeko erabiltzen zituzten.

33. Mixarrak eta ugaraxoak

- **Erref:** MUX-014/051
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 02:10:43. **Bukatu:** 02:14:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

Mixarrak (urtxintxa) eta ugaraxoak (igelak) beti izan dira ugariak. Jendeak jaten zituelako uste du desagertu direla.

34. Erbiak eta untxiak

- **Erref:** MUX-014/052
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 02:14:02. **Bukatu:** 02:16:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

Erbiek edonon egoten ziren eta erremolatxa jaten zuten. Urte batean untxi asko izaten zituzten eta indaba gehien jan zien. Etxezarreko Odon erbitan eta untxitan aritzen zen.

35. Inguruko euskara

- **Erref:** MUX-014/055
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 02:25:47. **Bukatu:** 02:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Inguruko herrietako euskalkiek inguruko hausnarketa. Ondoko auzotik Maumara desberdintasunak daude.

36. Abadeari, medikuari eta albaitariari "jauna"

- **Erref:** MUX-014/056
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 02:27:40. **Bukatu:** 02:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Serafinek ez du hitanoa erabili. Abadeari, medikuari eta albaitariari "jauna" esanda egiten zitzaion berba.</p>

Transkripzioa

- "Bajak eta ez dok", zerin hor Bolibarrek eta hor Munitibarretik-eta hasitte hor "jakok" eta "jakak".

- Zuk "hi" eitten dozu berba, ezta? Basiilogaz-eta "hi" eingo dozu edo "zu" eitten dozu Basiliogaz-eta, edo bertoko jentigeaz?

- "Zu".

. "Zu" Eitten dozu, "hi" ez?

- Ez, ez hori ez. Hori batzuk, oingo gaztiekin "bai dok " eta "ez dok". Baia lehen hori "bai dok " eta "ez dok" gitxi euen. Bai.

- Zulk zure anaiekaz-eta ez dozu ein?

- "Zu".

- Eta abadieri zelan eitten jakon lehen?

- "Jaune!". Beterinaxueri be jaune, medikuari be jaune. Oingo gaztiekin hori ezin dozu esan eta berotu eitten die.

- Beterinarixoari be bai?

- Bai.

- Besteraz ein ezkeroz, ño!

- Baia abadieri, Txomiñeri ez dotsazu eingo geur egun"Jaune".

- Txomiñegaz nik danetara ein dot, txarrera, onera, dana. Gizon fiñe da, ezebez ez jako kendu biher.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com